

**FORU DEKRETU PROIEKTU HONEN HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUAREN TXOSTENA:
FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ HONAKO HAU ALDATZEN BAITA: APIRILAREN 20ko
36/2009 FORU DEKRETUA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASLE ETA
IKERTZAILE KONTRATATUEN ARAUBIDEA EZARTZEN DUENA**

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikulua j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Manu hori betetze aldera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubidea ezarri zuen apirilaren 20ko 36/2009 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretuaren proiektua herritarren eskura jarri da, Gobernu Irekiaren atarian argitaratuz.

Behin-behineko testua eskuragarri egon da 2023ko martxoaren 22tik apirilaren 16ra arte, eta helbide elektronikoa bat gaitu zen (enuniver@navarra.es) epe horretan ekarpenak eta iradokizunak telematikoki aurkezteko.

Epealdi horretan ez da ekarpenik jaso.

Iruñean, 2023ko apirilaren 17an

JATORRIZKOAN DIGITALKI SINATUTA

Lourdes García Roncal
Unibertsitateko Zerbitzua